

## **HABEren Prestakuntza Plana 2021/2**

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 2koa, HABEren zuzendari nagusiarena, HABEren 2021eko Prestakuntza Plana osatzera datorrena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta euskaltegiak araupetzekoak, HABEri agintzen dio helduen euskalduntzearen sustapena, eta, horretarako, hainbat eginkizun egozteaz gain, helduen euskalduntzean dihardutenen prestakuntzaz eta eguneratzeaz arduratzen du erakundea bere 12. artikuluan.

Era berean, HABEren arau organikoak onartzen dituen 34/1996 Dekretuan, otsailaren 13koan, azaroaren 25/1983 Legean aurreikusitakoan ildotik, HABEren Erregistroan bildutako edo bilduko diren euskaltegi-tako irakasleak eguneratu eta etenik gabe hezteko egitasmoen lanketa egozten dio erakundeari, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuaren bitartez.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduak helduen euskalduntzearen esparruan HABEk onartzen dituen prestakuntza-planen ezaugarriak arautzeko eta prestakuntza-jardueren homologazio-betekizunak ezartzen ditu.

HABEren Prestakuntza Aginduaren 2. artikuluan zehaztutakoaren arabera, HABEk helduen euskalduntzearen esparruan onartuko dituen prestakuntza-planen xedea da erakunde honek azaroaren 25eko 29/1983 Legeak eta lege hori garatzeko onartu diren xedapenetan ezarritakoaren babesean garatu behar duen Prestakuntza-arloko jardueraren lerro estrategikoak zehaztea, eta urtez urteko Prestakuntza-jarduerak antolatzeko gidalerroak aurreikustea. Era berean, Aginduaren 6. artikuluan ezartzen da HABEk, dagokion prestakuntza-planaren egituraren baitan, antolatutako prestakuntza-jarduerak urtero onartuko dituela HABEren zuzendariak Hizkuntzaren Didaktika zerbitzuaren proposamenez.

Lan-eginkizunak eraginkortasunez betetzeko, funtsezkoa da prestatzea edozein lan-arlotako teknikari eta adituentzat, eta, horregatik, helduen euskalduntzean diharduten langileek ere etenik gabe dute prestatu beharra. HABE erakundearen berebiziko garrantzia du prestakuntzak, eta, ondorioz, arreta berezia eskaini izan zaio helduen euskalduntzean aritzen diren profesionalen prestakuntzari HABEren sorreratik beretik, nabariak baitira hizkuntzen irakaskuntzan aldian-aldian gertatzen diren aldaketak: ikasleriaren profila, ingurune soziolinguistikoa, aurrerapen teknologikoak, ekarpen berriak arlo akademikoan, etab.

Helduen euskalduntzean diharduten langileen prestakuntzaren baitan dago, neurri handi batean, euskararen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen berritzea, garatzea eta etenik gabe hobetzea.

Testuinguru honetan, euskalduntzearen indarguneen eta ahulezien analisiak ikuspegi dinamikoa izatea dakarrenez berekin eta Prestakuntza Plana tresna bizia denez, osatu egin da HABEren zuzendari nagusiak 2021eko maiatzaren 31ko Ebazpen bidez onartutako 2021eko Prestakuntza Plana, prestakuntza-ikastaro berri bat gehituz, behar berriak atzeman baitira.

Horren arabera, honako hau:

### EBAZTEN DUT

1. HABEren 2021/2 Prestakuntza Plana onartzea, Ebazpen honetako eranskinean dauden zehaztapenen baitan.
2. Prestakuntza Plan hau zabalik geratzea irakasleen behar-premien arabera ikastaro berrietara.

Donostian, 2021eko abenduaren 3an

HABEren zuzendaria  
JOKIN AZKUE ARRASTOA

### ERANSKINA

#### HABE-REN 2021/2 PRESTAKUNTZA-PLANA

| Kodea | Izenburua  | Irakaslea(k)                 | Iraupena | Noiz-non                              |
|-------|--|------------------------------|----------|---------------------------------------|
| 1203  | <i>Ikas-unitateen diseinua ikuspegi komunikatibo batetik</i> | Ane Ortega<br>Roberto Mielgo | 4 ordu   | 2021/09/22<br>Irun – Udal Euskaltegia |